

BAKETZEARI BURUZKO EZTABAIDA: OPOSIZIOKO ALDERDIAK

PP. Gatazka politiko bat dagoela ukatu du

Indarkeriaren aurkako «ekintza plan bat» eskatu du Mayor Orejak

New Yorkeko erasoa Ajuria Eneko Itunaren eta Ermuko Espirituaren pare jarri ditu

Erredakzioa | GASTEIZ

Jaime Mayor Oreja PPko bozeramailearen aburuz, bakea lortzeko ezinbesteko baldintza «ETA amaitzea» da. Hala, bakegintzari buruzko eztabaida helburu hori lortzeko EAEko erakundeetatik bultzatu beharreko «ekintza plan bat» zehaztera mugatzeko eskatu zuen. Gainera, normalizazio politikoa euskal herritarrek «Espainiako edo Europako Batasuneko en askatasun maila bera» izatean datzala iritzi zion.

«Euskaldunen askatasunarentzako mehatxua ez dago batzuen eta besteen arteko ezberdintasun ideologikoan», adierazi zuen Mayor Orejak, «talde terrorista batek 30 urtean zehar izan duen presentzian baizik». Ildo horretatik, gatazka politikoa eta «demokrazian ohikoak diren hainbat pentsamoldeak» ez nahasteko eskatu zion Ibarretxeri.

ETAren aurkako borrokaren historia «zenbait konplexu eta beldur eta heldutasun demokratiko falta astiro-astiro gain-

JAIME MAYOR OREJA

PPko bozeramailea

«Terroristei aurre egiteko haien ideien eta haiekiko balizko adostasun puntuen abstrakzioa egin behar da»

ditzearen historia» dela esan zuen PPko kideak. Hala, ETA borrokatzeko «mugetako» bat erakunde horrek defenditzen dituen helburuak EAEko gobernuko indarrek defenditzen dituztenekin «bat etortzea» dela nabarmendu zuen.

New Yorkeko atentatuaren garrantzia

ETA amaitzeko azken urteotan eginiko bidean hiru «mugarri» aipatu zituen Mayor Orejak: Ajuria Eneko ituna, «Ermuko Espiritua» eta New Yorkeko atentatuen ostean «gobernu demokratikoei terrorismoaren inguruan hartu duten kontzientzia berria». Beraz, «terroris-



MIREN SAEZ

Euskal Herrian gatazka politikorik ez dagoela defendatu zuen Jaime Mayor Orejak bere hitzaldian.

moa mehatxu globala» dela eta «terroristen artean ezberdintasunik ez» dagoela aintzat hartzea aurrerapauso garrantzitsutzat jo zuen. Gainera, Estatu Batuetako presidente George W. Bushen asmoen gainean «jarre-

ra manikeoa» izatea leporatu zion Ibarretxeri, indarkeriaren «arazoari» aurre egin gabe «erosotasun politikoa» bilatzen duelakoan. Gainera, «erakunde terroristei aurre egiteko haien ideien eta helburuen eta haieki-

ADATZAK

HELBURUAK ARGITU. Mayor Orejaren iritziz, «argi» geratu behar da bakea lortzeko bide bakarra ETA «amaitzea» dela. Hori lortzeko, «ekintza plan» bat jarri behar da abian.

GATAZKAREN UKAZIOA. PPko kidearen berbetan, Euskal Herrian ez dago gatazka politikorik, «demokrazian ohikoak diren hainbat pentsamolde» baizik.

NEW YORKEKO ERASOA. Hil honen 11n New Yorken jazotako atentatua aipatu zuen Mayor Orejak ETAren aurkako borrokan izan diren mugarren artean. Izan ere, haren iritziz, oso garrantzitsua da «gobernu demokratikoei terrorismoaren inguruan hartu duten kontzientzia berria».

EUSKAL AHOTSA. PPren ustez, «euskal ahotsa» behar da nazioartekoan ETAren aurka jarduteko. Maila horretan, «afonia kronikoa» izatea egotzi zion Ibarretxe lehendakariari.

ko balizko adostasun puntuen abstrakzioa egitea eta legea indarrean jartzea ezinbestekoa» dela esan zuen.

Mayor Orejaren iritziz, Ertzaintzaren eta Estatu Segurtasun Indarren jarduna da «bakera hurbiltzeko tresnarik eraginkorrena». Horrekin batera, «euskal ahotsa» eskatu zuen, «terroristek babes hartzen duten herrialdeetan, Europako erakundeetan eta Entzutegi Nazionalen entzuteko». Ahots hori Ibarretxerena izan behar dela azpimarratu zuen, eta unetan «afonia kronikoa» izatea leporatu zion.

PSE-EE. Konstituziotik aparte auziak konpontzeko tresnarik ez dagoela dio

ETA «suntsitzekoa» da Nicolas Redondok Ibarretxeri proposatutako elkarrizketa bakarra

Luis Karlos Garcia | GASTEIZ

Juan Jose Ibarretxe lehendakariari eskaini diezaiokeen elkarrizketa bakarra ETA erakundeak «suntsitzekoa» dela argi eta garbi utzi zion PSE-EEko elehun Nicolas Redondok bere aurreneko hitzaldian. «Eskaintzen dizut ETA borrokatu eta garaitzeko elkarrizketa», esan zion.

Areago, ETAren aurkako borroka horrek eta autogobernu sistemaren garapenak elkarren arteko harremana dutela iradoki zuen: «Soil-soilik ETA garaituta izango dute etorkizuna as-

NICOLAS REDONDO

PSE-EEko idazkari nagusia

«Desadostasunak konpontzeko tresna bakarrak Konstituzioa eta Estatutua dira»

katasunak nahiz autogobernuak berak».

Gainera, Redondoren aburuz, gatazka politiko bat dagoela esan eta Konstituzioa nahiz Estatutua aipatu gabe uztea

«ETArri laguntza ematea» da. Agintari sozialistak une batez onartu zuen Euskal Herrian «gatazka politiko bat» badela, baina «alderdien arteko aniztasunak sortutakoa» dela zehaztuta. Hortaz, desadostasun horiek nahiz bestelakoak «konpontzeko tresna bakarrak Konstituzioa eta Estatutua» direla esan zuen.

Redondok hainbat mezu bota zituen «joko arauak» gora eta behera. «Horiexek dira gakoak», esan zuen une batean. Beste batean, Ibarretxeri begira, zera adierazi zion: «Eduki dezake-



MIREN SAEZ

Nicolas Redondo bozeramaile sozialista, goizean egindako hitzaldian.